

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behargin lanpostu bat lehiaketa-oposizio irekiaren bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak onestea

Alkatetzaren 2026ko apirilaren 10eko 106/2026 Ebazpenaren bidez, behargin lanpostu bat lehiaketa-oposizio askearen sistemaren bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak onetsi dira (taldea: E, eskala: Administrazio Berezia, azpieskala: Zerbitzu Bereziak, Kanpezuko Udaleko plantillan hutsik dagoena).

Kanpezuko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen behargin lanpostu bat (taldea: E, eskala: Administrazio Berezia, azpieskala: Zerbitzu Bereziak) sarbide libreko txandaren bidez eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Kanpezuko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen behargin lanpostu bat (taldea: E, eskala: Administrazio Berezia, azpieskala: Zerbitzu Bereziak) sarbide libreko txandaren bidez eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa prozesurako oinarriak arautzea da xedea.

Bigarrena. Deitutako plaza

Deitutako karrerako funtzionarioaren lanpostua Kanpezuko Udalak onartu duen 2025eko enplegu publikoaren eskaintzan sartuta dago (ALHAO, 5 zk., 2026ko urtarrilaren 12koa).

Plazak ezaugarri hauek ditu:

Izena: behargina.

Eskala: Administrazio Berezia.

Azpieskala: Zerbitzuak.

Taldea: E.

Titulazioa: eskola ziurtagiria.

Hizkuntza eskakizuna: 1. Derrigortasun data: 2027ko abenduaren 31.

Hautatzeko prozedura: oposizio-lehiaketa.

Hautaketa prozedura gainditzen duten izangaiak Kanpezuko Udaleko lanpostuen zerrendako hurrengo lanpostura bideratuko dira:

Lanpostuaren izena: behargina.

Eskala: Administrazio Berezia.

Azpieskala: Zerbitzuak.

Kopurua: 1.

Administrazio egoera: hutsik.

Taldea: E.

Destino osagarria: 10.

Arduraldia: ehuneko 100; erabateko prestutasuna.

Hizkuntza eskakizuna: 1. Derrigortasun data: 2027ko abenduaren 31.

Titulazioa: eskola ziurtagiria.

Betetzeko sistema: lehiaketa.

Destinoa: udaletxea.

Hirugarrena. Aplikatu beharreko arautegia

Deialdia oinarri hauen eta ondoko araudiaren arabera arautuko da, hautaketa prozeduraren barruan onesten diren lege aldaketak alde batera utzi gabe. Kasu horretan, honako hauek izango dira aplikagarriak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatuen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriena.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.

– 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, bereziki aipatuta legegintzako dekretu horren 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrak (tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea, aniztasunari eta desberdintasunari dagokienez, genero-ikuspegia txertatzea...), euskal botere publikoen jarduketa gidatu behar dutenak.

Laugarrena. Izangaien betekizunak

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Espainiako nazionalitatea izatea, hargatik eragotzi gabe Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikulua xedatutakoa.

2. Behar besteko gaitasun funtzionala izatea egitekoak betetzeko.

3. Gutxienez hamasei urte izatea eta ez gaintzea derrigorrezko erretirorako gehieneko adina.

4. Ez egotea, diziplina espediente bat dela medio, edozein herri administrazioen zerbitzutik edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik bereizita, eta ez izatea, epaileen ebazpen bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko gaitasun gabetze erabatekorik edo berezirik ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzekoa, ez eta lan legepeko langileek betetzen zizutenen antzeko funtzioak betetzekoa ere. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berdintsuetan enplegu publikoari heltzea eragotzen duenik.

5. Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian xedatutako ezgaitasun edo bateraezintasun egoeretako batean ere ez egotea.

6. Eskola ziurtagiria edo titulu baliokideak izatea.

7. B motako gidabaimena edukitzea.

Deskribatu diren betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta izendapenaren unera arte mantendu beharko dira, oinarri hauetan kontrakoa xedatzen ez bada.

8. Inskripzio tasa: onartzeko unean indarrean dagoen titulazio taldeari dagokion tasa ordaindu izana eskabideak aurkezteko epearen barruan (azterketa eskubideengatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren 4. artikulua: 6,10 euro). Ordainketan, inskribatzen den pertsonaren izen-abizenak jasoko dira, "OPE 2025" erreferentziarekin batera, eta Kanpezuko Udalaren titulartasuneko kontu hauetako batean egin ahal izango da:

- Kutxabank ES2420953235441095227285.
- Euskadiko Kutxa ES9530350163111630900005.
- Banco Santander ES1800490209942990363272.
- Caja Rural de Navarra ES6830080220941663177721.

Bosgarrena. Eskabideak

Hautaketa prozesuan onartzeko eskabideak oinarri hauen III. eranskineko eredian aurkeztuko dira, Kanpezuko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren edo nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- b) Hautaketa prozeduran parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
- c) B motako gidabaimenaren fotokopia.
- d) Eskatzaileek, eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak jasotzen dituen adierazpena aurkeztu beharko dute, merezimenduak egiaztatzeko behar beste agiri erantsita. Izangaien batek merezimenduak alegatu arren, horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkezten ez badu, egiaztagiria aurkezteko eskatuko zaio. Eskabidean adierazitako merezimenduez kanpokorik ez da balioetsiko.
- e) Oposizio faseko ariketak autonomia erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren adierazi beharko dute izangaiek eskabide orrian.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira Kanpezuko Udaleko egoitza elektronikoan edo erregistro orokorrean aurrez aurre, deialdiaren iragarkia EAOn argitaratu eta, hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egutegiko hogeit (20) eguneko epean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua adierazitako administrazio publikoen erregistroetan ere aurkeztu ahal dira eskabideak.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, administrazio posta modalitatearen bidez egingo da, ziurtatu aurretik posta zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari, eta mezu elektroniko bat bidali beharko da erregistroa@kanpezu.eus helbidera, inguruabar horren berri emateko.

Eskabidea garaiz eta behar bezala ez aurkeztea izangaia baztertzea ekarriko du. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat etorritik, eskabideetako akatsen bat egonez gero, 10 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, jakinarazpenetarako gaituta dagoela adierazten duen mezu elektronikoan, eskabidean falta edo akatsa zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Izangaiek hautaketa prozesuan parte hartzen badute, automatikoki emango zaie baimena nahitaezko argitalpenetan identifika daitezen (onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, proben emaitzei buruzko iragarkiak udal egoitza elektronikoa eta hautaketa prozesuaren azken ebazpena), datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren ondorioetarako.

Hautatze prozesuak publikotasun printzipioaren arabera arautuko dira, eta, beraz, ez da hautagaiaren eskabidea onetsiko, honek bere datuak lagatzea onartzen ez badu. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko deialdia egin duen organora jo behar da.

Seigarrena. Izangaiek onartzea eta baztertzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, deialdia egin duen organoak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Ebazpen hori Kanpezuko Udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendan bazterturik ageri diren izangaiek 10 egun baliouduneko epea izango dute baztertze horren aurkako erreklamazioa egiteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

Erreklamazio epea igarotakoan, deialdia egin duen organoak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartuko du. Ebazpen hori Kanpezuko Udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuko da.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal da Kanpezuko Udaleko alkatetzaren aurrean onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka, hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, bi hilabeteko epean, biak behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hautaketa prozesuko probak egitera honako hauek joan ahal izango dira: onartutzat ageri diren izangaiek eta, baztertutzat agertu arren, deitutako ekitaldian bertan egiaztatzen dutenak oraindik ebazteke dauden aurkaratzeko bitartekoak jarri direla. Erreklamazioaren emaitza ezezkoa bada, izangaia prozeduratik kanpo geratuko da behin betiko.

Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

1. Osaera.

Deitutako hautaketa prozedurako epaimahai kalifikatzailea ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak xedatzen dutenaren arabera eratuko da, eta haren osaera osoa udalaren web orrian argitaratuko da, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera, Kanpezuko Udaleko alkatetzak izendatu eta gero.

Osaera teknikoa izango da nagusiki, eta bokalek deitutako lanpostuetan jarduteko eskatzen den titulazio bera edo handiagoa izan beharko dute.

Epaimahaiaren osaerak espezialitate printzipioa errespetatuko du. Horren arabera, epaimahaiko kideen erdiek, gutxienez, plazan jarduteko eskatzen den jakintza arlo bereko titulazioa izan dezaten zainduko da. Hala eta guztiz ere, espezialitate printzipioari eragiten ez badio, behintzat, osaera orekatua izan behar da gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokiak dituzten emakumeen eta gizonen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.3 artikulua dioenez. Hala berean, kideak aukeratzeko, ahaleginak egingo dira izendatutako pertsona guztiak elebidunak izan daitezen.

Aurrekoaz gain, ordezkoez ere osatu beharko dute epaimahaia, eta horiek, titularrekin batera, epaimahaiko idazkari eta eskuordetu ezin diren bokal gisa jarduteko izendatu beharko dira.

Epaimahaiak adituak izendatu ahal ditu. Aditu horiek aholkulari jardungo dute beren espezialitateko gaietan. Pertsona horiek beren espezialitate teknikoaren esparrura mugatuko dira, eta horietan soilik oinarrituko dira epaimahai kalifikatzaileari laguntzeko.

2. Jarduketa.

Epaimahaiko kideek ez dute jardungo, deialdia egin duen agintaritzari jakinarazita, eta izangaiek errefusatu ahalko dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluek ezartzen dutenari jarraikiz.

Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 19. artikulura ezarritako arauen arabera egokituko du jarduteko era. Nolanahi ere, epaimahaiburuak aginduta eta idazkariak deialdia egin ondoren, hautaprobak hasi baino lehen bilduko da, nahikoa aurrerapenez. Epaimahaia behar bezala eratzeko, beharrezkoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkoak, eta gutxienez mahaikideen erdiak bertaratzea.

Bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, azkenak hitza besterik ez duela izango. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoa baliatuz ebatziko dira.

Epaimahaiburua eta haren ordezkoa epaimahaian jarduterik ez badute, esaterako, kanpoan edo gaixorik daudelako, edo haiei eragiten dien legezko beste kausaren bat gertatuz gero, epaimahaiko kideen artean, hierarkiarik, antzinatasun eta adinik handiena duen mahaikideak ordeztuko ditu, hurrenkera horri erreparatuta.

Idazkaria eta haren ordezkoa epaimahaian jarduterik ez badute, esaterako, kanpoan edo gaixorik daudelako, edo haiei eragiten dien legezko beste kausaren bat gertatuz gero, epaimahaiko beste edozein kidek ordeztuko ditu, epaimahaiaren gehiengoaren erabakiz aukeratuta.

Epaimahaiburuak behar diren neurriak hartuko ditu oposizio faseko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta ariketak zuzentzeko ere, izangaien nortasuna jakin ez dadin ahalegindurik.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da alkate-lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

3. Ahalmenak.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jokatu du, eta bera izango da prozeduraren garrantasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, behar diren irizpideak ezarriko ditu oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako.

Epaimahaiak hautaketa prozeduratik baztertzeko ahalmena izango du zeinahi motatako iruzurrak egiten dituen, edozein proba behar bezala egitea eragozten duen edo lehia desleiala sorrarazten duen pertsona oro, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera. Epaimahaiburuak berehala jakinaraziko dizkio jarduketa horiek alkateari, eta, aldi berean, saioaren aktan jasoko ditu. Era berean, hautaketa prozesuan zehar ezin izango da erabili edo eduki aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitekeen gailu edo bitarteko elektronikorik eta erabiltzekotan, berehala kanporatua izango da egilea.

4. Egoitza.

Erreklamazioak bide elektronikoz egingo zaizkio epaimahaiari, udalaren egoitza elektronikoren bidez.

Deialdia egin duen udalaren bulegoetan aurrez aurre ere egin ahal izango dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bulegoetako edozeinetan aurkeztuta.

Jakinarazpenak egin eta gainerako gorabeherak ebazteko, epaimahaiak Kanpezuko Udalean edukiko du egoitza (Samuel Picaza plaza 1).

5. Zerbitzuagatiko kalte ordainak.

Zerbitzuen ziozko kalte ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak ezartzen dituen zerbitzuagatiko kalte ordainak jasoko dituzte epaimahaikideek.

Zortzigarrena. Hautaketa sistema

1. Hautagaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa-oposizioa izango da.

Hautaprobak arautzen dituen programa I. eranskinean jasotzen da.

Oposizioaren fasea oinarri hauetan adierazten den ariketak edo, hala badagokio, ariketek, osatuko dute. Deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudia ezagutzea eskatuko da.

Lehiaketa fasean, oposizio fasea gainditu duten izangaiek egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira, eta horietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, II. eranskinean agertzen diren deialdiko baremoen arabera.

Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko. Nahitaezko ariketa guztiak egin eta ariketa baztertzailerik gainditzen dituzten izangaiek arituko dira fase horretan.

2. a. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak. Gehienez ere, 100 puntu lortu ahal izango dira.

Ariketak egiteko lekua, eguna eta ordua Kanpezuko Udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuko dira, ariketak egin baino 10 egun baliodun lehenago, gutxienez. Deialdi bakarra egingo da izangaientzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

2.1. Lehen ariketa. Ezagutza teknikoa eta administratiboa. Nahitaezkoa eta baztertzailerik. Gehienez 42 puntu, gutxienez 21 puntu. Test motako 2 proba egin beharko dira, eta oinarri hauei erantsitako gai zerrendei buruzko 4 erantzun aukera emango dira. Erantzun zuzenek 1,00 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,33 puntu. Deusezak, anizkoitzak eta zuriz emandakoek ez dute zigorrik ez punturik ematen.

2.1.1 1. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda orokorrarekin lotuta dago (I. A.1 eranskina). Gehieneko puntuazioa: 13 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

2.1.2. 2. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda orokorrarekin lotuta dago (I. A.2 eranskina). Gehieneko puntuazioa: 29 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

2.2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzailerik. Gehienez 58 puntu lor daitezke. Funtzio eta zeregin nagusiekin (I. B eranskina) zerikusi zuzena duten proba teoriko-praktikoak egin beharko dira. Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 29 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitzaren haztaperen-irizpideak eta, hala badagokio, puntuazioen esleipena zehazteko zuzenketa formula sartuko ditu galderen koadernoan.

2.3. Oposizio faseko erreklamazioak.

Oposizio faseko ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioak jendaurrean jarriko dira udal txeko iragarki taulan eta udalaren web orriaren argitaratutako, epaimahaiaren kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduko aldira.

Izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute epaimahaiak emandako behin-behineko puntuazioen aurka erreklamatzeko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betiko zerrenda bihurtuko dira.

Erreklamazio epe hori igaro ondotik, epaimahaiak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu eta oposizio faseko ariketa bakoitzaren behin betiko puntuazioak onartuko ditu. Horiek jendaurrean jarriko dira udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuta, epaimahaiaren kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduko aldian.

Oposizio faseko ariketa bakoitzaren behin betiko puntuazioak onartzen dituen epaimahaiaren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal da Kanpezuko Udaleko Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Lehiaketa fasea.

Aurreko aldia, hau da, oposizio aldia, amaitutakoan hasiko da, eta oposizio aldia gainditu duten izangaiek parte hartuko dute horretan. Gehienez ere, 45 puntu lortu ahal izango dira.

Izangaiek prozedura honetan parte hartzeko eskabidearekin batera alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak balioetsiz egingo da lehiaketa, epaimahaiak merezimenduak kontuan har ditzan.

Epaimahaiak, oposizio faseko azken ariketa amaitutakoan, merezimenduak aztertu eta balioetsiko ditu, eta bakoitzari dagozkion puntuak emango dizkio, oinarri hauei atxikitako II. eranskinan ageri den merezimenduen baremoaren arabera.

Parte hartzeko eskabidearekin batera alegatu ez diren merezimenduak ez dira inola ere balioetsiko.

3.1. Lehiaketa aldiko erreklamazioak.

Merezimenduen behin-behineko puntuazioak jendaurrean jarriko dira udalaren web orriko iragarki taulan, epaimahaiak kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduko aldian.

Izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute epaimahaiak emandako behin-behineko puntuazioen aurka erreklamatzeko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betiko zerrenda bihurtuko dira.

Erreklamazio-epea igaro ondoren, epaimahaiak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu eta lehiaketa faseko merezimenduen behin betiko puntuazioak onartuko ditu. Horiek jendaurrean jarriko dira udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko, epaimahaiaren kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduko aldian.

Oposizio faseko merezimenduen behin betiko puntuazioak onartzen dituen epaimahaiaren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal da Kanpezuko Udaleko Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Izangairen batek nahitaezko ariketaren bat gainditzen ez badu, hurrengo ariketen kalifikazioak ez dira argitaratuko, ez eta merezimenduen balioespina ere. Balioespen horiek epaimahaiaren esku geratuko dira, alegazioak aurkeztuz gero kontuan har daitezken. Izan ere, alegazio horiek baietsiko balira eta ariketa gaindituztat jo, emaitzak berriro argitaratu beharko litirateke.

4. Jaio aurreko edo jaio osteko egoerarako neurriak.

Dekretu honen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.d artikulua araberak, eta hautaketa prozesuaren garapenean amatasuna behar bezala babesten dela bermatzeko, bai jaio aurreko aldian, bai jaio ondorengoetan, guraso bakarrek familiek kontziliaziorako duten

zailtasun erantsia kontuan hartuta, deialdi bakarreko sistemaren arabera ariketetan edo probetan edo hautagaien agerraldia eskatzen duten beste jarduketara batzuetan sexuagatiko diskriminazio egoerak saihesteko, behar bezala egiaztatutako haurdunaldi, erditze edo edoskitze egoerak ekitaldiaren denbora edo toki inguruabarrak aldatzea justifikatzen duen kausa izan ahalko dira. Aldaketa eskaerei erantzuteak berekin ekarriko ditu hautagai guztien lehia berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa neurriak.

Bederatzigarrena. Hautaketa prozeduraren kalifikazioa

Proben azken kalifikazioa lehiaketa eta oposizio faseetan ateratako puntuazioen batura izango da.

Gaunditutakoen artean berdinketarik egonez gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta legean aurreikusitako kasuaren aurrean egongo gara, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu –ezaugarriok ez dira sexuagatiko diskriminatzaileak–; adibidez, laneratzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea; bigarrenik, oposizio fasean puntuazio handiena lortu duen izangaia; hirugarrenik, lehen ariketan puntuazio handiena lortu duena; eta, ondoren, bigarrenean, puntuazio handiena lortu duena; laugarrenik, Kanpezuko Udalean zerbitzu denbora gehien eman duenari; bosgarrenik, Euskal Administrazio Publikoan zerbitzu denbora gehien eman duenari; seigarrenik, beste herri administrazio batzuetan zerbitzu denbora gehien eman duenari; eta, azkenik, adinik handiena duenari.

Hamargarrena. Hautatutako pertsonen zerrenda

Hautaketa prozedura amaituta, epaimahaiak hautatutakoen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera hurrenkeran. Horretarako, web orriko iragarki taulan jarriko du zerrenda. Zerrenda horretan, oposizio ariketa bakoitzaren eta merezimenduen kalifikazioak jasoko dira, eta ateratako puntu guztien batura adieraziko da.

Epaimahaiak izendapenaren proposamena jasotzen duen akta bidaliko dio udaleko alkateari.

Era berean, ariketa baztertzailerak guztiak gaunditu dituzten izangaien zerrenda jasoko du aktak, nahiz eta izangaien kopurua deitutako lanpostuen kopurutik gorakoa izan.

Epaimahaiak lanpostua bete gabe utzi ahalko du, baldin eta, epaimahaiaren iritzira, probetan izangaietako batek ere lanpostua garatzeko behar besteko mailarik lortzen ez badu.

Hamaikagarrena. Agiriak aurkeztea

Izendapen proposamenari atxikitako pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Kanpezuko Udaleko Idazkaritzan, 10 egun balioduneko epean, hautapen prozedurako azken emaitzak dakartzen iragarkia udaletxeko iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita:

a) Medikuen ziurtagiria, egitekoa normaltasunez betetzea galaraziko dien gaixotasun edo akats fisikorik ez duela frogatzeko.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, kargu publikoak betetzeko desgaituta ez dagoela eta diziplina espediente bidez administrazio publikoaren zerbitzutik bereizita ez dagoela adierazten duena.

Horretarako ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak dokumentazioa aurkezten ez badu edo deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta jarduketa guztiak ondorioz gabe geratuko dira, funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubide guztiak galduta eta aurkeztutako hasierako eskabidean faltsutasunagatik izan lezakeen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Kasu horretan, oposizio lehiaketa gaunditu eta azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo lekuan dagoenaren aldeko izendapen proposamena egingo da, eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Berdin jokatuko da praktikaldiko funtzionario izendatu den izangaiak praktika eta prestakuntza aldia gaunditzen ez badu.

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du sortutako zalantzak argitzeko, bai eta hautaketa prozesuaren garapen egokirako behar dena erabakitzeko, betiere oinarri hauetan zein legeria osagarrian ezartzen ez diren alderdiei dagokienez.

Hamabigarrena. Praktikaldia

1. Aurreko oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren, praktikaldia ezarriko da. Kasu horretan, eta praktikaldiak irauten duen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko ditu bere egitekoak, eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, indarrean dauden negoziazio kolektiboko tresnetan ezarritakoaren arabera. Probaldia edo praktikaldia egoitza korporatibo berean egingo da, alkateak izendatutako karrerako funtzionario edo langile lan kontratudun finko baten tutoretzapean.

2. Praktikaldiaren iraupena 3 hilabetekoa izango da.

Izangaiak azken 2 urteetan deialdiko lanpostuan 3 hilabetez edo gehiagoz Kanpezuko Udalean lan egin badu, praktikaldia baliozkotu egingo zaio, hala egiteko eskatzen badu.

3. Aldi horretan, tutore izendatutako pertsonak ahaleginak egin beharko ditu izangaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta pixkanaka dagozkion eginkizunak bere gain har ditzan.

4. Epe hori amaitutakoan, izendatutako tutoreak txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du izangaiak praktikaldia gainditu duen ala ez. Gainditzen duena karrerako funtzionario izendatuko da. Bestela, ezgaitzat joko da, lehendakariaren ebazpen arrazoituaren bidez, eta alde aurretik entzunaldiko izapidea egingo da, tutorearen txostena ikusita, eta, ondorioz, bitarteko funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

5. Karrerako funtzionarioaren izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lege ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Hamahirugarrena. Izendapena

Eskatutako agiri guztiak aurkeztu eta gero, organo eskudunak karrerako funtzionario izendatuko du.

Izendapena interesdunari jakinaraziko zaio eta ALHAOn zein udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuko dira.

Karrerako funtzionario izendatu den izangaiak hamar (10) egun balioduneko epean jabetu beharko du lanpostuaz, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Kanpezuko Udaleko alkate-lehendakariak, justifikatutako arrazoiak tarteko, epe berdineko luzapena eman ahalko du. Dena dela, epea igaro eta interesduna lanpostuaz jabetzera udaletxera joan ez bada, bertan behera geratuko dira izangaiaren eskubide guztiak, eta erabakitako izendapena baliogabetu egingo da.

Hamalaugarrena. Erreserba zerrendaren funtzionamendua

Epaimahaiak langileen arloan eskumena duen organoari helaraziko dio gainerako izangaien zerrenda, hau da, oposizio aldiko proba guztiak gainditu bai baina bete beharreko plaza kopurua baino gehiago izateagatik izendatuak izateko proposatuak izan ez diren izangaien zerrenda.

Izangai horiek "erreserba zerrenda" bat osatuko dute oposizio-lehiaketan eskuratutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera. Zerrenda udalaren web orriko iragarki taulan argitaratuko da, eta erakunde horrek erabili ahal izango du etorkizunean bitarteko izendapenak egiteko. Zerrendak bost urte naturaleko indarraldia izango du, hautaketa prozesua egin den urtetik zenbatzen hasita, eta hain zuzen ere, karrerako funtzionarioa izendatu den egunetik.

Poltsa osatzen dutenei deitzeko, puntuazioaren hurrenkerari jarraituko zaio zorrotz, telefono dei eta posta elektronikoaren bitartez; behin bakarrik deituko zaie, bai hutsik dauden plazak behin betiko bete arte betetzeko, bai erreserba eskubidea duen titularra ordezteko berriro lanean hasi arte.

Izangaiei une jakin batean eskaintzen zaien izendapenari uko egiteak zerrendan betetzen duten lanpostuari uko egitea ekarriko du, eta zerrenda horretako azken postura igaroko dira. Salbuespen gisa, hautagaien batek poltsan hasiera batean betetzen zuen tokiari eutsi ahal izango dio dagokionean dei diezaioten, baldin eta agiri bitartez egiaztatzen badu ezin dela izendatua izan baja medikoan dagoelako edo amatasuneko baja hartua duelako.

Hamabosgarrena. Azken arauak

1. Oinarri hauetan arautu ez den guztian, hautaketa probak egiteko, honako arau hauetan ezarritakoa bete beharko da: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa; Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura langileak sartzeko, lanpostuak betetzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide sustapenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia; toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 1986ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioaren funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarrizko arauak eta gutxienezko programei buruzkoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena; 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektorre Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko; eta 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko eta lanpostuak betetzea arautzen duena.

2. Interesdunek deialdia, haren oinarriak eta deialditik eta epaimahaiaren jarduketetatik eratorritako administrazio egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak ezarritako kasuetan eta moduan.

3. Deialdi honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udal honetako alkateari hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Berraztertze errekurtsoa jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, harik eta berariaz ebatzi arte edo jarritako errekurtsoaren presuntziozko ezestea gertatu arte.

I. ERANSKINA**A) GAI ZERREDA****A.1. Gai orokorrak.**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. I. titulua. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.
2. gaia. Tokiko araubidea. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Alkatearen eskumena.

A.2. Gai espezifikoak.

3. gaia. Igeltserotza. Igeltsero lanak.
4. gaia. Zurezko arotzeria. Kontzeptu orokorrak. Tresnak eta erremintak.
5. gaia. Iturgintza. Kontzeptu orokorrak. Tresnak eta erremintak.
6. gaia. Elektrizitatea. Kontzeptu orokorrak. Tresnak eta erremintak.
7. gaia. Segurtasuna eta Osasuna. NBE Langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari eta zarataren esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak.
8. gaia. Segurtasuna eta Osasuna. Kargak manipulatzeko kontzeptu orokorrak.
9. gaia. Segurtasuna eta Osasuna. Espazio publikoko obretako babes kolektiboak.
10. gaia. Genero berdintasuna. Kontzeptu orokorrak eta eremuari aplikatu beharreko araudia.

B) LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK**ERAIKINEN MANTENTZE LANAK**

1. Eraikinen, ekipamenduen eta instalazioen oinarrizko mantentze lan prebentiboak eta/edo zuzentzaileak egitea, horretarako bitarteko eta ekipamendu egokiak erabilia. Eraikinen oinarrizko garbiketa.

2. Udal eraikinak gainbegiratzea: berokuntzaren ordutegia kontrolatzea; aldizkako nahi-taezko mantentze lanak (igogailua, su itzalgailuak, galdara...) egiten direla berrikustea; giltzak kontrolatzea; aseguruak: parte ematea, dokumentazioa bidaltzea eta perituari laguntzea; kanpoko enpresek egindako mantentze lanak eta obrak gainbegiratzea, eta sor daitezkeen premiei eta gorabeherei erantzutea.

3. supervisar las labores y obras de mantenimiento realizadas por empresas externas y atender a las necesidades y incidencias que puedan ocasionarse.

IGERILEKUA

4. Udal igerilekuen oinarrizko mantentze lanak egitea.
5. Uda garaian igerilekuak garbitzea.
6. Igerilekua prest jartzeko lanak gainbegiratzea.

LOREZAINZA

7. Lorategien mantentze lanak eta oinarrizko zainketak egitea (ureztatzea, garbitzea, ongarritzea, soropila moztea, eta abar).

8. Lorezaintza enpresak egindako lanak kontrolatzea eta sor daitezkeen gorabeherei erantzutea.

BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

9. Udalerriko herrietan bide publikoa garbitzeko lanak egitea.
10. Aparteko garbiketak egitea, eskatzen direnean.
11. Estolderia garbitzeko lanak eta saneamendu lanak egitea udalerriko herrietan.

EKITALDI SOZIOKULTURALAK

12. Jaietarako eta jarduera soziokulturaletarako altzariak eta azpiegiturak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak egitea.

13. Beharrezkoa denean, altzariak bitarteko egokiak erabiliz lekualdatzea.

BIRZIKLATZEA

14. Hondakinak sailkatzea, behar bezala birziklatzeko.

15. Hondakinak bilketagunera eramatea, beharrezko tresnen edo ibilgailuen bidez.

GAINBEGIRATZE LANAK

16. Udal eraikinen edo administrazio batzarraren eraikinen eta bide publikoaren gabeziak eta beharrak identifikatzea.

17. Egindako lanak gainbegiratzea eta gorabeherak kudeatzea.

18. Lanak egiterakoan ezarritako segurtasun neurriak kontrolatzea eta, behar izanez gero, zuzentzea.

19. Obren garapen egokia gainbegiratzea, bai propioak, bai azpikontratatuak.

20. Zerbitzuko gorabeheren parteak idaztea.

21. Udal brigadako langileen lan egutegia egitea eta kontrolatzea, baita langile horien jardueren urteko egutegia ere.

MATERIALA KUDEATZEA

22. Bere eginkizuna betetzeko behar dituen materialak aldeztetik ebaluatzea, eta, hala badagokio, eskumena duten zerbitzuei material horiek eskatzea.

23. Egin beharreko lanetarako material aurrekontuak eskatzea.

24. Jasotako material eskaerak egiaztatzea.

25. Materiala eta ekipoak garraiatzea, horretarako bitarteko egokiak erabilia.

26. Bere ardurapeko materiala kontrolatzea, mantentzea, kontserbatzea eta garbitzea.

27. Konponketa lanak egitea bere ardurapeko instalazio, ekipo edo materialetan.

28. Biltegitatu daitezkeen ondasunak hartzea eta materiala, ekipoak eta/edo tresnak halakoak behar dituzten irakaskuntza laguntza unitateei baliabide egokiak erabiliz banatzeko modua antolatzea.

29. Inbentarioak egitea (bitarteko informatikoak edo bestelakoak erabiliz).

30. Giltzapean dauden lokalak kontrolatu eta antolatzea, zentroan baliatzen diren eta zaindu behar dituen materialak, tresnak eta lanabesak gordetzeko erabiltzen direnak.

31. Pellet hornidura kontrolatzea.

UDAL INSTALAZIOAK KONTROLATZEA

32. Kiroldetgia ezarritako ordutegiaren arabera ireki eta ixten dela bermatzea.

33. Zerbitzua ematen duen eraikinetako eta geletako giltzak kontrolatzea eta zaintzea.

BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUEN KUDEAKETA

34. Bide publikoan dauden ibilgailuen egoera egiaztatzea.

35. Ibilgailuaren egoerari buruzko txostena egitea eta administrazio langileei jakinaraztea.

ABANDONATUTAKO ANIMALIEN KUDEAKETA

36. Abandonatutako animalien abisua jasotzea edo identifikatzea eta administrazio langileei helaraztea.

BESTE LAN BATZUK

37. Udal instalazioetarako altzariak muntatzea.
38. Herritarrei arreta ematea: auzotarrek aldetik langilearen eskumeneko gaien inguruan jasotako keak behar bezala ebatzi direla egiaztatzea.
39. Jakinarazpenak: agintzen zaizkion jakinarazpen presentzialak egitea, dagokion tokira joanez.
40. Beste lanpostu batzuk ordeztzea edo indartzea, beharrezkoa denean.
41. Dagokion arloan, hobekuntza proposamenak egitea.
42. Arestian deskribatutako eginkizun ez gain, ezarritako helburuak betetzeko eginkizun eta zeregin egokiak betetzea, langilearen lanbide gaitasunaren eta trebeziaren arabera.

II. ERANSKINA**MEREZIMENDUEN BAREMOA (gehienez 45 puntu)****A) Lan esperientzia (gehienez 24 puntu).**

Lan esperientzia, edozein administrazio publikotan lanpostuaren funtzioei lotutako askotariko zerbitzuetako beharginaren, peoiaren edo antzekoaren lanpostuetan, edo gainerako sektore publikoko enplegatu publiko gisa, deitutako lanpostuaren funtzio eta zeregin berdinekin edo antzekoekin: 0,07 puntu lan egindako egun oso bakoitzeko, 24 puntu gehienez. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko aldiak bakarrik zenbatuko dira.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat eta sektore publikotzat hartuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluan (eremu subjektiboa) ezarritako mugaketa.

Lanbide esperientzia gisa, izangaiek egoera hauetan emandako denbora balioetsiko da: senideak zaintzeagatik edo genero indarkeriagatik eszedentzia egoeran egondako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lanaren kontziliazio erantzukidea erraztea helburu duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bai eta enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora ere.

Egindako zerbitzuak epaimahai kalifikatzailearen aurrean deklaratu eta egiaztatuko dira, hark ezartzen duen unean eta moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan emandako zerbitzuak beti alegatu beharko dira, baina epaimahaiak eskatuta soilik egiaztatu beharko dira, baldin eta epaimahaiak ezin badu ofizioz egiaztatu elkarreragingarritasun-plataformaren bidez (Egoera Administrazioaren Identifikazio Zenbakia).

Emandako zerbitzuak ezin badira Egoera Administrazioaren Identifikazio Zenbakiaren bidez egiaztatu, organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Ziurtagiri horretan berariaz adieraziko dira lanpostuak, betetako eginkizunak eta denbora tarteak. Ez dira baloratzen zerbitzu zibilen edo merkataritza zerbitzuen errentamendu kontratuak, bekak eta prestakuntza praktikak. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko aldiak bakarrik zenbatuko dira. Bi kasuetan, esperientzia profesionalarekin lotutako merezimenduak ez dira baloratuko, honako hauek berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta kategoria profesionala
- Kontratatuta egon den aldien edo izendapenaren hasiera eta amaiera datak.
- Lanpostuaren funtzio nagusiak, kategoria adieraztea aski deskribatzailea ez bada.
- Lanpostuaren titulazio taldea edo sartzeko eskatzen den titulazioa, baldin eta izena ezin bada zehaztu. Horretarako, dagokion lanpostuen katalogoak erants dakizkioke ziurtagiriari.

B) Prestakuntza (gehienez 21 puntu).

B.1. Lanpostuarekin zerikusia duten lanbide heziketako titulazioak: 2 puntu LHko erdi mailako titulu bakoitzeko, eta 3 puntu LHko goi mailako titulu bakoitzeko. Gehienez, 8 puntu.

B.2. Administrazio publikoek edo zentro ofizialek emandako prestakuntza-ikastaroetara, jardunaldietara edo antzekoetara joateagatik, baldin eta deialdiaren xede den plazaren/lanpostuaren eginkizunekin edo laneko segurtasunarekin eta higieనేarekin zuzenean lotuta badaude. Gehienez 8 puntu, 0,01 puntu prestakuntza ordu bakoitzeko.

B.1 (prestakuntza titulazioa) eta B.2 (prestakuntza ikastaroak, jardunaldiak edo antzekoak) ataletan lortutako puntuen baturatik gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

B.3. Beste titulu batzuk: gidabaimena. Gehienez ere 2 puntu emango dira, honela:

– C edo C.1 motako gidabaimena: puntu 1.

– B+E motako gidabaimena: puntu 1.

B.4. 1. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa: gehienez 9 puntu, honela banatuta:

– 1. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 7,25 puntu.

– 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 8 puntu.

– 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 9 puntu.

Hizkuntza eskakizunaren kontzeptuagatik, egiaztatutako goren mailako hizkuntza eskakizunagatik bakarrik lortuko da puntuazioa.

Oposizio fasea gainditu duten hautagaien merezimenduak baino ez ditu baloratuko epai-mahaia.

III. ERANSKINA

KANPEZUKO UDALEKO BEHARGIN LANPOSTUA JABETZAN BETETZEKO
HAUTATZE PROZESUAN IZENA EMATEKO ESKAERA/SOLICITUD INSCRIPCIÓNKANPEZUKO UDALEKO BEHARGIN LANPOSTUA JABETZAN
BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

.....jaun/ andrea,NAN zenbakiduna,ko.....(a) ren.....an jaioa, (e) n eta helbidea(e) (a) n,kalean, telefonoaeta e-mail kontakua Alkatetza honen aurrean agertzen da, ta ondoen dagokidan eran, HONAKO HAU DIOT:	D./Dña. provisto de D. N. I., nacido elde de natural de..... y con domicilio en c/ , teléfono y e-mail de contacto , ante esta Alcaldía comparece y, como mejor proceda EXPONE:
a) Karguan jarduteko gaitasuna kentzen dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea	a) Que no padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio y desempeño del cargo
b) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasunik ez izatea	b) Que no está incurso en ninguna de las incapacidades o incompatibilidades establecidas en las disposiciones vigentes
c) Administrazio Publikoko kaulkier zerbitzutik diziplinazko kaleratze bidez bereizi ez izana, diziplinaz kaleratu ez izana, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea	c) Que no ha sido separado mediante despido disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública ni despedido disciplinariamente, ni está inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas
d) Deialdian eskatutako titulazioa duela	d) Que está en posesión de la titulación exigida en la convocatoria
e) Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez	e) Que reúne todos y cada uno de los requisitos exigidos, referidos a la fecha de expiración del plazo señalado para la presentación de solicitudes
f) Eskabidearekin batera, honako hauen fotokopia aurkeztu zuen:	f) Que acompaña a la instancia fotocopia de:
— Nortasun Agiri Nazionala	— Documento Nacional de Identidad
— Eskatzen den titulazio akademikoa	— Titulación académica exigida
— B motako gidabaimena	— Permiso de conducir tipo B
— Alegatutako merezimenduen zerrenda jasotzen duen adierazpena, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriekin batera	— Declaración en la que se relacionen los méritos alegados acompañando los documentos suficientes acreditativos de los mismos
g) Ordenantzan ezarritako inskripzio-tasa ordaindu duela	g) Que ha abonado la tasa de inscripción establecida en la ordenanza
h) Oposizio-faseko ariketak egin nahi dituela (jarri gaztelaniaz edo euskaraz egin nahi dituzun):	h) Que desea realizar los ejercicios de la fase de oposición en (poner si se quieren hacer en castellano o Euskera):
Azaldutakoagatik, iragarritako deialdian onartua izateko ESKATZEN DU	Por lo expuesto, SOLICITA ser admitido en la convocatoria anunciada
Kanpezun, 2026ko..... aren..... (e) (a) n	En Campezo a.....de.....de 2026.

Santikurutze Kanpezu, 2026ko apirilaren 13a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO